Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko urriaren 28a, astelehena — 206 — Lunes, a 28 de octubre de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*«Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko» programaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak eta 2019. urteko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2019ko urriaren 22an:

Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizunean ekonomia lehiakorra izan dezagun beharrezkoak diren baldintzak sortzen lagundu nahi du, ekonomia lehiakor horrek sortuko baitu justizia sozialeko gure ereduari erantzun ahal izateko beharrezkoa den aberastasuna.

Eta, horretarako, bi norabidetan lan egingo da: batetik, enpresei begira, eta, bestetik, pertsonei begira.

Horrela, Lurraldea indartuko da. Enpresek gai izan behar dute beren erronkei eta beharrei eraginkortasunez eta lehiakortasunez erantzuteko. Hori guztia, jakinik gure lehiakortasunaren faktore nagusia pertsonak eta haien ezagutza direla. Aldagai subjektiboetan inbertitzen jarraituko dugu, aberastasuna sortzeko, eta erdigunean pertsonak jarriz, enpresen etorkizuna hobetzeko.

Horretarako, pertsonen gaitasunak sustatu eta indartu behar dira, enplegua hobetzeko. Pertsonen prestakuntzak, gaitasunak eta jarrerak eragin zuzena dute enplegagarritasunean, lan-merkatuko baldintzetan eta enpresen lehiakortasunean. Enplegu hobea lortzera bultzatuko ditugu pertsonak, lurraldean kalitatezko enpleguak gara daitezen.

Eta enplegu duina bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonengana hurbiltzea xede duten politikak sustatuko dira.

Gizarteak babestu egin behar ditu egoera zailenetan dauden pertsonak. Babesa eta integrazioa batera garatu behar diren bi elementu dira. Kohesioa areagotu nahi dugu, eta desberdintasunak gutxitu, eta, horregatik, behar gehien dituztenak babestu eta gizarteratu behar ditugu. Eta horretarako bidea kalitatezko enplegua da.

Zeharkako estrategia bat da beraz, interes talde desberdinetara orientatua, eta hedapenerako beharrezkoak diren elementu multzo batean oinarritua. Aldundiko hainbat departamentu inplikatzen ditu: Diputatu Nagusiaren Alorra; Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua, zeinak kalitatezko enpleguaren estrategia zuzentzen baitu; eta Gizarte Politiketako Departamentua, inklusio sozialaren alderdiari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako estrategia da, eta hala jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak enpleguaren eta gizarteratze-lanbideratzearen arloan jarduteko sinatutako protokolo orokorrean.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2019 de las subvenciones del programa para la «Promoción del empleo y la inserción socio-laboral».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 22 de octubre de 2019:

Desde la Diputación Foral de Gipuzkoa se pretende ayudar a crear condiciones para una economía competitiva del futuro que genere riqueza suficiente con la que poder atender nuestro modelo de justicia social.

Y, para ello se va a trabajar con una doble orientación: una, dirigida a las empresas; y otra, dirigida a las personas.

Así, se trata de fortalecer el Territorio. Queremos que las empresas sean capaces de responder a sus retos y necesidades de un modo efectivo y competitivo. Asumiendo que el factor principal de nuestra competitividad son las personas y su conocimiento. Seguiremos invirtiendo en las variables subjetivas para crear riqueza, poniendo como eje a las personas para mejorar el futuro de las empresas.

Ello precisa promover y fortalecer las aptitudes de las personas para mejorar el empleo. La cualificación, aptitudes y comportamientos de las personas influyen directamente en la empleabilidad, condiciones del mercado laboral y en la competitividad empresarial. Impulsaremos a las personas a que consigan un empleo mejor, para que se desarrollen empleos de calidad en el territorio.

Y, se fomentarán políticas que acerquen el empleo digno a las personas que se encuentren excluidas o en riesgo de estarlo.

La sociedad debe proteger a las personas en situaciones vulnerables. La protección y la integración son dos elementos que deben desarrollarse conjuntamente. Queremos ampliar la cohesión y reducir las desigualdades y, por ello, debemos proteger e integrar a quienes más lo necesiten. Y el camino para ello es el empleo de calidad.

Se trata, pues, de una estrategia transversal, orientada a diferentes grupos de interés y basada en un conjunto de elementos necesarios para su despliegue, que implica a varios departamentos de la Diputación Foral: el Gabinete del Diputado General, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural que lidera la Estrategia de Empleo de Calidad; y el Departamento de Políticas Sociales en la vertiente de la inclusión social.

Una estrategia compartida con el Gobierno Vasco reflejada en el protocolo general de actuación entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y la Diputación Foral de Gipuzkoa en materia de empleo e inserción socio-laboral.

EK\CV GAO-I-2019-06768

Dirulaguntza hau ez dago sartuta Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bileran onartutako 2017-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Beraz, ezarri aurretik, sartu egin behar da, planaren 3.1 atalean aurreikusi bezala.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak batera proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Sartzea «Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko» programako dirulaguntzak 2017-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan –Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26an onartua–, eta dagokion fitxa onestea.

*Bigarren.* Onartzea «Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko» dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, erabaki honekin batera I. eranskinean doazenak.

*Hirugarren.* Onartzea aipatutako dirulaguntzen 2019ko deialdia, erabaki honekin batera II. eranskinean doana.

*Laugarren.* Baimentzea zazpiehun eta berrogei mila euroko gastua (740.000,00 €), 2019ko deialdiari aurre egiteko, partida hauen kargura:

| | |
|---|---:|
| 1 0210.100.461.01.10 2019 | 21.135,00 |
| 1 0210.100.461.06.10 2019 | 42.285,00 |
| 1 0210.100.461.09.13 2019 | 169.080,00 |
| 1 0210.100.470.00.34 2019 | 172.500,00 |
| 1 0210.100.481.00.24 2019 | 123.000,00 |
| 1 0210.100.770.00.10 2019 | 27.000,00 |
| 5 0210.100.461.01.10 2020 | 7.045,00 |
| 5 0210.100.461.06.10 2020 | 14.095,00 |
| 5 0210.100.461.09.13 2020 | 56.360,00 |
| 5 0210.100.470.00.34 2020 | 57.500,00 |
| 5 0210.100.481.00.24 2020 | 41.000,00 |
| 5 0210.100.770.00.10 2020 | 9.000,00 |

*Bosgarren.* Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, deialdi berri bat egin beharrik izan gabe. Zenbateko gehigarria eragingarri izateko baldintza izango da, dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik, kreditua erabilgarri deklaratzea.

Nolanahi ere, dirulaguntzek gastu arruntak nahiz inbertsiokoak finantzatu ditzaketenez, jasotzen diren eskaerak ikusita, eta proiektuetan nagusia den gastu mota kontuan hartuta, beharrezko aurrekontu egokitzapenak izapidetuko dira, emango diren laguntzak diruz lagundutako gastuaren izaerari egokitzearren.

Horrekin lotuta, eskumen espresa ematen zaio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari, behar diren egintza eta ebazpenak hartzeko.

*Seigarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, Erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik, berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez

La presente línea de subvención no se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017. Por tanto, previamente a su establecimiento y en aplicación de la previsión contenida en el apartado 3.1 del PES, procede su inclusión.

En consecuencia, a propuesta conjunta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, y previa deliberación, el Consejo del Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Incluir en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES), aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017, las subvenciones del programa para la «Promoción del empleo y la inserción socio-laboral» y aprobar la ficha correspondiente.

*Segundo.* Aprobar las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del programa para la «Promoción del empleo y la inserción socio-laboral», que se adjuntan al presente acuerdo como anexo I.

*Tercero.* Aprobar la convocatoria 2019 de las citadas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Cuarto.* Autorizar un gasto por importe de setecientos cuarenta mil euros (740.000,00 €) para hacer frente a la convocatoria de 2019, con cargo a las siguientes partidas:

| | |
|---|---:|
| 1 0210.100.461.01.10 2019 | 21.135,00 |
| 1 0210.100.461.06.10 2019 | 42.285,00 |
| 1 0210.100.461.09.13 2019 | 169.080,00 |
| 1 0210.100.470.00.34 2019 | 172.500,00 |
| 1 0210.100.481.00.24 2019 | 123.000,00 |
| 1 0210.100.770.00.10 2019 | 27.000,00 |
| 5 0210.100.461.01.10 2020 | 7.045,00 |
| 5 0210.100.461.06.10 2020 | 14.095,00 |
| 5 0210.100.461.09.13 2020 | 56.360,00 |
| 5 0210.100.470.00.34 2020 | 57.500,00 |
| 5 0210.100.481.00.24 2020 | 41.000,00 |
| 5 0210.100.770.00.10 2020 | 9.000,00 |

*Quinto.* El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Dado que se pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto predominante en los proyectos, se tramitarán las adaptaciones presupuestarias que resulten procedentes, a fin de adecuar las ayudas a conceder a la naturaleza del gasto subvencionado.

En relación con ello, se faculta expresamente al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para adoptar cuantos actos y resoluciones resulten necesarios para su cumplimiento.

*Sexto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publica-

EK\CV GAO-I-2019-06768

gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2019ko urriaren 24a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (6768)

I. ERANSKINA

*«Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko» dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.*

*1. oinarria. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea enplegua eta gizarteratzea-laneratzea sustatzeko dirulaguntzak.

*2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.*

2.1. Entitate onuradunak izango dira ondoko entitateak:

a) Tokiko entitateak, eskualde garapeneko agentziak eta irabazi asmorik ez duten sustapen entitate pribatuak, zeinak aipatzen baititu 182/2008 Dekretuak, azaroaren 11koak, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituenak, 7. artikuluan, betiere Gipuzkoan kokatzen badira.

b) Gipuzkoan kokatzen diren gizarteratze enpresak.

c) Partaidetza eta/edo finantzaketa publikoak dituzten gizarteratze-eremuko hirugarren sektoreko erakundeak.

d) Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sareko entitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoen bidez finantzatutakoak eta entitate horien interesak ordezkatzen dituzten taldeak eta elkarteak eta unibertsitateak. Entitateek Gipuzkoan eduki behar dute beren egoitza.

e) Gipuzkoan kokatzen diren enpresa elkarteak.

2.2. Entitateak ez dira egongo sartuta 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan jasotako debeku egoeretakoren batean.

2.3. Entiateek ez dute izango zigor administratiborik edo penalik sexu diskriminazioa dela eta, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legeak aurreikusitakoaren arabera.

2.4. Ez dira jardungo armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan, 2007ko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.5. 2.3, 2.4 eta 2.5 oinarrietan adierazitakoa egiaztatzeko, entitate eskatzaileak erantzukizuneko adierazpen bat aurkeztuko du Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurrean.

*3. oinarria. Dirulaguntzen xedeko jarduerak.*

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honakoren batean sartu behar dira:

* Ezaugarri hauek dituzten gazte taldearen enplegutasuna eta gizarteratzea eta lan merkaturatzea hobetzea: 16 eta 23 urte bitartekoak, kualifikazio baxua dutenak emantzipazio prozesuetan eta gizarte babeseko sistematik atera direnak.

— Sustapen publikokoak diren programetan dauden 16-23 urte bitarteko gazteei; aukeran dauden prestakuntza baliabide guztietatik kanpo gelditzen direnakei, eraginkortasunez eta kalitatez arreta ematea.

ción. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 24 de octubre de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (6768)

ANEXO I

*Bases reguladoras del programa para la «Promoción del empleo y la inserción socio-laboral».*

*Base 1.ª Objeto.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones para promover el empleo y la inserción socio-laboral.

*Base 2.ª Requisitos de las entidades beneficiarias.*

2.1. Tendrán la consideración de beneficiarias las siguientes entidades:

a) Las entidades locales, las agencias de desarrollo comarcal y las entidades promotoras privadas sin ánimo de lucro a las que se refiere el artículo 7 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro; y que estén radicadas en Gipuzkoa.

b) Empresas de inserción radicadas en Gipuzkoa.

c) Las entidades del tercer sector del ámbito de la inclusión social que cuenten con la participación y/o cofinanciación públicas.

d) Las entidades de la red de centros docentes del sistema educativo no universitario financiados con fondos públicos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, las asociaciones y/o agrupaciones de entidades formativas que representen los intereses de las citadas entidades y las universidades. Las entidades deberán estar radicadas en Gipuzkoa.

e) Asociaciones empresariales radicadas en Gipuzkoa.

2.2. La entidades no se verán afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.3. Las entidades no deberán haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.4. Las entidades no se dedicarán a la producción, comercialización y financiación de armamento, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 14/2007 de 28 de diciembre de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos.

2.5. La acreditación de lo señalado en la base 2.3, 2.4 y 2.5 se efectuará mediante la presentación de declaración responsable por parte de la entidad solicitante, dirigida al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

*Base 3.ª Actuaciones objeto de subvención.*

Las actuaciones subvencionables consistirán en el desarrollo de proyectos que se encuadren en los supuestos siguientes:

* Mejora de la empleabilidad e inserción socio-laboral de jóvenes entre 16 y 23 años con baja cualificación en procesos de emancipación y salientes del sistema de protección social.

— Responder al reto de atender con efectividad y calidad al colectivo de personas incorporadas en procesos de integración de promoción pública de entre 16 y 23, y que quedan fuera de todos los recursos formativos que se ofrecen.


EK\CV GAO-I-2019-06768

— Gaur egun hezkuntza sistemak onartzen ez dituen gazteentzako prestakuntza programa indargarria. Oinarrizko eta zeharkako gaitasunen gaineko prestakuntza programak antolatzea, eta, aldi berean, hezkuntza sistema publikoak eskaintzen dituen prestakuntza programetan sartzeko aukera bultzatzea.

* Inklusio soziolaborala lantzeko, eskualdeko zerbitzu sare integratuak sortzen laguntzea.

— Gizarte eta eskualde kohesio handiagoa lortuko duten eskualdeko garapen estrategiei lotutako enpleguaren aktibazioa sustatzea.

— Gizarte eta lan arloko inklusiorako eskualde sareak antolatzeko laguntza: gizarte eta lan arloko inklusiorako prozesuak hobetzea, eskualde mailan jarduten duten eragile guztien lan koordinatu eta elkartu baten bitartez, zaurgarritasun egoera handian eta gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonen alde.

* Lurraldean gizarteratze enpresak sortzea eta mantentzea bultzatzea (sortzea bideragarria den aztertuko duten merkatu azterketak, eta inbertsioak aktibo finkoetan, gizarteratze prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortu edo mantentzera bideratuta).

* Enplegu lagunduko jarduketak sustatzea.

* Enplegagarritasuna sustatzeari begira, gaitasunen eta ibilbide profesionalen autodiagnostikoa egiteko tresnak esperimentzatzea.

*4. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.*

4.1. Dirulaguntzak, deialdi eta hautapen-prozedura bakarreko elkarren lehiaren bidez emango dira.

4.2. Dirulaguntzak emateko prozedurari ofizioz ekingo zaio, organo eskudunak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdiaren bidez.

4.3. Honetan datza lehia bidezko prozedura: aurkeztutako eskaerak erkatzea, oinarri orokorreko eranskinetan zehaztutako balorazio irizpideen arabera haien artean lehentasunak ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuta gutxieneko beharrezko puntuazioa lortu duten eskaerei dirulaguntza ematea kreditu erabilgarriaren barruan eta deialdian finkaturiko muga errespetatuz.

*5. oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.*

a) Proposamenaren kalitatea, proiektuaren argitasuna eta izaera berritzailea; zuzen dimentsionatua izatea eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko metodologiaren artean koherentzia gordetzea: 35 puntura arte.

b) Proiektuaren identifikazioa eta aukera/behar maila: 15 puntura arte.

c) Eskualdeko/tokiko eta/edo lurraldeko eta/edo sektoreko garapen estrategiarekin eta/edo eskualdeko enplegu planarekin lerrokatuta egotea: 15 puntura arte.

d) Entitatearen gaitasuna eta ibilbidea enplegagarritasuna eta gizarteratzea bultzatzeko proiektuetan: 10 puntura arte.

e) Ekintzen onuradun kopurua, termino absolutu eta erliboetan: 10 puntura arte.

f) Partaidetzaren eta lankidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak hartutako konpromisoak, elkarlana, barruan nahiz hirugarren entitateekin b elkarlanean egindako lana, eta lankidetzan garatutako prozesuak): 5 puntura arte.

g) Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.

h) Euskararen aldeko ekintza positiboak egitea eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuarekin euskaraz hitz egiteko talde bat sortzea: 5 puntu arte.

— Programas formativos de refuerzo para jóvenes que no son admitidos por el sistema educativo actualmente. Programas formativos de competencias básicas, transversales, así como para garantizar el acceso de las y los jóvenes a programas formativos del sistema público de educación.

* Apoyo a la creación de redes integradas de servicios comarcales para trabajar la inclusión socio-laboral.

— Impulsar la activación del empleo vinculado a las estrategias de desarrollo comarcal que generen una mayor cohesión social y comarcal.

— Apoyo a la sistematización de redes comarcales de inclusión sociolaboral. Mejorar mediante el trabajo coordinado y colaborativo los procesos de inclusión sociolaboral de las personas en situación de exclusión y vulnerabilidad que desarrollan la diversidad de agentes que trabajan a nivel comarcal.

* Impulso a la generación y mantenimiento de empresas de inserción en el territorio (estudios de mercado que contemplen la viabilidad de su creación e inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción).

* Promoción de actuaciones de empleo con apoyo.

* Experimentación de herramientas de autodiagnóstico de competencias e itinerarios profesionales orientadas a la empleabilidad.

*Base 4.ª Procedimiento de concesión.*

4.1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

4.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4.3. Mediante este procedimiento la concesión de las subvenciones se realiza evaluando las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración fijados y otorgar la subvención, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, a aquellas que hayan obtenido la puntuación mínima requerida en aplicación de los citados criterios.

*Base 5.ª Criterios de selección entre los proyectos.*

a) Calidad de la propuesta (claridad y carácter innovador del proyecto) y correcto dimensionamiento y coherencia entre los objetivos propuestos y la metodología a desarrollar): hasta 35 puntos.

b) Identificación y nivel de oportunidad/necesidad que se quiere abordar con el proyecto: hasta 15 puntos.

c) Alineación con la estrategia de desarrollo comarcal/local y/o territorial y/o sectorial y/o el plan de empleo comarcal: hasta 15 puntos.

d) Capacidad y trayectoria de la entidad en proyectos de apoyo a la empleabilidad e inserción social de las personas: hasta 10 puntos.

e) Personas beneficiarias, en términos absolutos y relativos del colectivo afectado, de las acciones: hasta 10 puntos.

f) Intensidad y calidad de la colaboración y participación (compromisos adquiridos por la entidad solicitante, trabajo colaborativo bien internamente, bien con terceras entidades, así como los procesos participativos desarrollados): hasta 5 puntos.

g) Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres: hasta 5 puntos.

h) La existencia de acciones positivas a favor del euskera en la entidad solicitante así como la creación de un equipo de interlocución con el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural en euskera: hasta 5 puntos.

EK\CV GAO-I-2019-06768

Aurreko apartatuetan adierazitako irizpideak aplikatuz 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute izango dirulaguntza eskuratzeko eskubiderik.

*6. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

6.1. Eskaerak proiektu bakar bati buruzkoak izango dira. Proiektu bakoitza 3. oinarrian deskribatu diren jarduketa eremuetakoren batean kokatuko da.

Eskaera legez ezarritako moduetakoren batean entitatearen ordezkaritza egiaztatzen duten pertsonak sinatuko du.

6.2. Deialdi bakoitzari buruzko informazioa eta eskaera egiteko inprimakiak Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko webgunean eskuratu ahal izango dira.

6.3. Eskaera egiteko inprimakia, deialdian jasotako ereduaren arabera, eta eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren webgune honen bidez aurkeztuko dira ahal dela: http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa.

6.4. Hala ere, eskaerak, deialdian ezarritako gainerako dokumentazioarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu daitezke (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

6.5. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

6.6. Eskaera egin duten erakundeak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen edo nork eman zituen dokumentu horiek, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

6.7. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egoki iritzitako argibideak eskatu ahal izango ditu, proiektuak behar bezala ebaluatu eta ebazteko.

6.8. Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak emailez bidalitako komunikazioak, email horiek dirulaguntza eskaeran adierazitako posta elektronikoko helbidera bidali badira.

*7. oinarria. Finantzazioa.*

7.1. Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko da zein aurrekontu krediturren kargura finantzatuko diren dirulaguntzak.

7.2. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua gainditzen duen kostu osoa baino handiagoa, ez bakarka ezta beste dirulaguntzak, sarrerak edo baliabideak batuta ere.

Los proyectos que en aplicación de los criterios de los apartados anteriores obtengan menos de 50 puntos no darán derecho a subvención.

*Base 6.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

6.1. Las solicitudes estarán compuestas por un único proyecto, debiendo cada uno de ellos corresponder a alguno de los ámbitos de actuación subvencionables descritos en la base 3.ª

La solicitud se suscribirá por la persona que acredite la representación de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho.

6.2. La información de cada convocatoria y los impresos de solicitud estarán disponibles en la página web del Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

6.3. La instancia de solicitud, según el modelo que se facilite en la convocatoria, y la documentación que se adjunte se presentará preferentemente a través de la siguiente página web del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural: http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa.

6.4. No obstante, las solicitudes, junto con el resto de documentación que se establezca en la convocatoria, también podrán presentarse a través del registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

6.5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

6.6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos, de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

6.7. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

En cualquier caso, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural podrá solicitar las aclaraciones necesarias para la correcta evaluación y resolución de los proyectos.

6.8. La entidad solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

*Base 7.ª Financiación.*

7.1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

7.2. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste total de la actividad subvencionada.

EK\CV GAO-I-2019-06768

*8. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.*

8.1. Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

8.2. Barruko langileen kostuen kasuan, hautagarriak izango dira, gehienez ere, orduko 35 euro.

Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

8.3. Kanpoko langile kostuen kasuan, hautagarriak izango dira, gehienez ere, orduko 69,29 euro.

Proiektuari eskainitako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

8.4. Kostu hautagarriak izango dira zeharkako gastuak eta/edo gastu orokorrak, justifikatu gabeak, diruz lagundu daitezkeen langileria kostu zuzenen % 15eko mugara arte.

8.5. Ez dira gastu hautagarriak izango bidaiak eta mantentze gastuak.

8.6. Ez dira gastu hautagarriak izango onuradunarekin lotutako pertsona edo entitateei dagozkien kostuak, salbuespen hauekin:

— Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten bada.

— Aldez aurretik Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren baimena eskuratzen bada.

8.7. Departamentuak kostu hautagarriak aztertu eta erabakiko ditu, kontuan hartuta proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak esparru horretan duen gaitasun profesionala eta lehiarik badagoen, betiere merkatuko balioa gainditu gabe.

*9. oinarria. Diru-laguntzen gehiengo portzentaje eta zenbatekoak.*

9.1. Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 100ekoak izango dira.

Lurraldean gizarteratze enpresak sortzea eta mantentzea sustatzeko ekintza hautagarrien kasuan:

— Sortzearen bideragarritasuna adierazten duten merkatuko azterketen kasuan, dirulaguntzak kostu hautagarrien % 50ekoak izango dira, 6.000 euroko gehieneko mugarekin.

— Gizarteratze prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea edo mantentzea xede duten aktibo finkoetan egindako inbertsioetan, dirulaguntzak kostu hautagarriaren % 85ekoak izango dira, gizarteratze prozesuan dauden pertsonentzat sortu edo mantendu den lanpostu bakoitzeko 12.000,00 euroko mugapean.

Dena dela, aktibo finkoak zuzenean egon behar dira loturik gizarteratze enpresak garatzen duen jarduera nagusiarekin. Era berean, aktibo finko horiek gutxienik hiru urteko amortizazio aldi bat ezarrita izan behar dute, eta denbora horretan, gutxienez, enpresaren aktiboaren barruan gelditu behar dira nahitaez. Dirulaguntza hau jasotzen duen gizarteratze enpresa behartuta egongo da diruz lagundutako inbertsioak egitera dirua emandako aurrekontu ekitaldiaren barruan.

9.2. Erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontua eta ondorengo aldaketak mugarria izango dira dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeko.

*10. oinarria. Prozedura antolatu eta abian jartzeko eskumena duen organoa.*

10.1. Prozedura bideratuko duen organoa Ekonomia Sustapeneko Zerbitzua izango da.

10.2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, eta kide hauek izango ditu:

*Base 8.ª Costes subvencionables.*

8.1. Se considerarán costes subvencionables aquellos costes que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma.

8.2. En el caso de los costes del personal interno se considerarán elegibles hasta un valor máximo de 35 euros/hora.

Se presentará un certificado de las horas dedicadas al proyecto.

8.3. En el caso de los costes del personal externo se considerarán elegibles hasta un valor máximo de 69,29 euros/hora.

Se presentará un certificado de las horas dedicadas al proyecto.

8.4. Serán costes elegibles los gastos indirectos y/o generales sin necesidad de justificación hasta un 15 % de los costes directos del personal subvencionables.

8.5. No serán costes elegibles los viajes y manutención.

8.6. No serán costes subvencionables aquellos correspondientes a personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que:

— Que se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado; y

— Que se obtenga la previa autorización del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

8.7. El departamento analizará y determinará los costes elegibles teniendo en cuenta el grado de complejidad del proyecto, el impacto esperado, la capacidad profesional de la entidad en ese ámbito, la existencia de competencia y sin que en ningún caso sobrepase el valor del mercado.

*Base 9.ª Porcentajes y cuantías máximas de las subvenciones.*

9.1. Las ayudas serán del 100 % de los costes elegibles.

En el caso de las acciones elegibles de impulso a la generación y mantenimiento de empresas de inserción en el territorio:

— En los estudios de mercado que contemplen la viabilidad de su creación, las ayudas serán del 50 % de los costes elegibles con un límite máximo de 6.000,00 euros.

— En las inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción las ayudas serán del 85 % del coste elegible con un límite máximo de 12.000,00 euros por puesto de trabajo creado o mantenido de personas en proceso de inserción.

En todo caso, los activos fijos deberán estar directamente relacionados con la actividad principal desarrollada por la empresa de inserción. Así mismo estos activos fijos deberán tener establecido un período mínimo de amortización de tres años, debiendo permanecer, como mínimo, ese mismo tiempo en el activo de la empresa. La concesión de esta subvención obliga a la empresa de inserción a realizar las inversiones subvencionadas dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede.

9.2. El presupuesto presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención.

*Base 10.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

10.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Promoción Económica.

10.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión Evaluadora en la cual participarán las siguientes personas:

— Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia.

— Ekonomia Sustapeneko zerbitzuburua.

— Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuko teknikari bat jarduketa eremu bakoitzeko.

— Ekonomia Sustapeneko,Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko idazkari teknikoa.

10.3. Batzorde horrek txosten teknikoak eska diezazkioke Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiari, aurkeztu diren eskaerak egoki baloratu ahal izateko.

*11. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena.*

11.1. Dirulaguntzak eman edo, dagokionean, ukatzeko ebazpena Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak eman beharko du.

11.2. Dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena enpresa eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Hala ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, salbu eta deialdian bertan adierazten bada bere eragina beranduago hasiko dela. Gehieneko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroko balitz, interesdunak legitimatuta egongo dira beraiek egindako eskaera ezetsitzat jotzeko isiltasun administratiboaz.

11.4. Dirulaguntza proposamenaren zenbatekoa eskaerakoa baino txikiagoa denean, erakunde onuradunari eskatu ahal izango zaio berriro formula dezala eskaera, eman dakiokeen dirulaguntzara moldatzeko konpromisoak eta baldintzak.

*12. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

12.1. Dirulaguntzak onartzen dituzten enpresa onuradunak behartuta daude, oro har, 2007ko martxoaren 27ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta hura garatzen duen erregelamenduak, zeina 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, onartu baitzuen, nahiz dirulaguntzen inguruan aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako betebeharrak betetzera eta, bereziki, oinarri hauetatik eta deialditik ondorioztatzen direnak betetzera.

12.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa). Eta diruz lagundutako proiektuen amaierako dokumentu guztiek euskarazko bertsio bat entregatu behar diote Gipuzkoako Foru ALdundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari.

12.3. Diruz lagundutako proiektua genero ikuspegia txertatuta diseinatu eta garatuko da.

12.4. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitalpen guztietan.

12.5. Diruz lagundutako proiektu edo jarduketetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako sustapenaren eta finantzazioaren publizitatea egitea; horretarako, haien irudi instituzionala txer-

— El director general de Promoción Económica.

— El jefe del Servicio de Promoción Económica.

— Una técnica del Servicio de Promoción Económica por cada ámbito de actuación.

— El secretario técnico del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

10.3. Dicha comisión podrá solicitar la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas a la Dirección General de la Protección de la Infancia y de la Inclusión Social.

*Base 11.ª Resolución de la concesión.*

11.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

11.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada entidad solicitante. No obstante, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

11.3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 6 meses, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, salvo que la misma posponga sus efectos a una fecha posterior. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legitima a las entidades interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

11.4. Cuando el importe de la propuesta de la subvención sea inferior a la que figura en la solicitud presentada, se podrá instar de la entidad beneficiaria la reformulación de su solicitud para ajustar los compromisos y condiciones a la subvención otorgable.

*Base 12.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

12.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril y demás normativa aplicable en materia de subvenciones y a las que se desprenden de las presentes bases y de la convocatoria.

12.2. Deberá garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado, de acuerdo con lo dispuesto en el acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 26 de junio de 2018 que aprueba el plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el período 2018-2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 149 de 3 de agosto de 2018). Y todos los documentos finales de los proyectos subvencionados deberán entregar una versión en euskera al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

12.3. Deberá incorporar la perspectiva de género en el diseño y desarrollo del proyecto subvencionado.

12.4. Deberá garantizar el uso no sexista del lenguaje en todo tipo de comunicaciones y publicaciones del proyecto subvencionado.

12.5. Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional,

EK\CV GAO-I-2019-06768

tatuko dute, eta finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenak egingo dituzte, karteletan, inprimatutako materialetan, material elektronikoetan eta ikus-entzunezkoetan, eta baita beste edozein euskarritan ere, nahiz komunikabideetan egindako agerpenetan.

Dibulgazio publikoko edozein ekitaldi egin aurretik, ekitaldiaren berri emango da, eta bertan parte hartzeko gonbita bidaliko da. Entitate onuradunak ekitaldi horien berri ez emateak ekar dezake emandako dirulaguntzaren % 10 itzularaztea, eta, errepikatuz gero, dirulaguntza osoa.

12.6. Gipuzkoako Foru ALdundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio neurri guztiak beteko dira, eta horietan parte hartu, garatutako jarduketak nahiz lortutako emaitzak eta inpaktuak neurtzeko, efizientziaren eta efikaziaren ikuspegitik.

12.7. Emandako dirulaguntzak ondasun inbetariagarriak erosteko erabiltzen badira, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

12.8. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, enpresaren helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta 18. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

*13. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.*

Entitate onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jarduerаren zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Jarduerak ezingo dira inola ere azpikontratatu, diruz lagundutako jarduerаren kostua handitzen dutenean eta haren edukiari balio erantsirik ez dakarkiotenean.

*14. oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna ala bateraezintasuna.*

14.1. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasunekoa edo izan nazioartekoa, xede berarekin eman lezakeen beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

14.2. Entitate batek dirulaguntza bat eskuratzen eta/edo eskatzen badu oinarri hauen arabera diruz lagunduta dagoen proiektu bat garatzeko, modu frogagarrian jakinaraziko dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari.

*15. oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.*

15.1. Dirulaguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 16. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

15.2. Hala ere, kontuan hartuta, batetik, laguntza programaren xedea –gizarteratzea eta laneratzea sustatzera bideratutako ekimenak, zeinetan proiektuen garapena bideragarria izan dadin beharrezkoa baita baliabide finantzarioak proiektua amaitu baino lehen eskuratzea–, eta, bestetik, entitate onuradunen tipologia –irabazi asmorik gabeko entitatea, zailtasun finantzarioak dituztenak dirulaguntzaren xede diren helburuak garatzeko–, aurrerapenak egin ahal izango dira, bermea aurkeztu beharrik gabe, diruz lagunduko diren jarduketei ekin ahal

así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

